



Deba 100 hitzetan



Deba en
100 palabras 



INTRODUCCIÓN

Decía Baltasar Gracián en su “Oráculo manual y arte de prudencia” que *“lo bueno, si breve, dos veces bueno”*. Hay también quienes afirman que *“la buena esencia en frasco pequeño”*, o lo que en este caso viene a ser lo mismo: *“el arte de escribir se encuentra en sintetizar en unas pocas líneas lo que pudiera expresarse en un volumen”*.

Han pasado ya unos años desde que Javier de Cárdenas, alma máter del **“Deba en 100 palabras”**, animara a los responsables de cultura de este Ayuntamiento a realizar un concurso literario con Deba como telón de fondo. Y si en un principio alguno pensó que podría tratarse de un concurso a nivel local, se equivocaba rotundamente.

Durante las tres convocatorias realizadas hasta la fecha, la participación, además de abundante, ha sido geográficamente dispar y variada. Como botón de muestra, el concurso de 2016, con dos ganadoras guipuzcoanas y dos madrileñas. Cuatro premios para cuatro mujeres, algo inédito hasta la fecha. Todo un honor para una población donde nombres como Usua de Alós, Milia de Lastur, María Estibaliz de Sasiola o Tene Mujika pesan mucho dentro de la literatura vasca.

Esta publicación recoge los trabajos premiados, tanto en euskera como en castellano, durante las tres convocatorias realizadas. Confiamos en que no sea la última y en que otras nuevas publicaciones vean la luz: será una buena señal de que el arte de crear y la sensibilidad literaria siguen vivos.

Desde aquí queremos agradecer a todos y todas -son cientos- quienes a través de la palabra impresa han expresado su arte y sus sentimientos hacia esta villa guipuzcoana.



HITZAURREA

Baltasar Gracianek “Oráculo manual y arte de prudencia” liburuan atsotitz hau jaso zuen: “*lo bueno, si breve, dos veces bueno*”; hau da, “*ona, laburra bada, bi aldiz ona*”. “Lurrin sarkorrenak flasko txikian” diote beste batzuk, edota, kasurako, “bolumen oso batean esan litekeena lerro gutxitan laburtzea; horixe idazkuntzaren artea”.

Urte batzuk igaro dira, jada, Javier Cárdenasek, “**Deba 100 hitzetan**” literatur lehiaketaren habe eta arima denak, udal honetako kultura arduradunak animatu zituela oinarritzat Deba izango zuen lehiaketa martxan jartzera. Eta hasieran norbaitek pentsatu bazuen herri mailako lehiaketa izango zela, erabat erratu zen.

Orain arte egindako hiru deialdietan, parte hartzea, ugaria izateaz gain, geografikoki anitza izan da. Adierazgarri gisa, horra 2016ko sariak, emakumezko bi gipuzkoarrek eta beste bi madrildarrek irabaziak. Lau sari, lau andrazkori emanak; orain arte sekula ikusi gabekoa. Ohore handi bat da dudarik gabe, herriarentzat, kontuan izanda Aloseko Usua, Lasturko Milia, Sasiolako Estibalitz edo Tene Mujika izenek euskal literaturaren barruan duten pisua.

Egindako hiru deialdietan euskaraz eta gaztelaniaz saritutako lanak biltzen ditu argitalpen honek. Espero dezagun ez izatea azkena eta gero etorriko direnak ere argitaratzea: seinale ona izango da, sorkuntzak eta literatur sentiberatasunak bizirik dirautela esan nahiko du eta.

Eskerrak, hemendik, Gipuzkoako herri honekiko sentimenduak eta artea hitz idatziaren bitartez adierazi dituzten guztiei -ehundaka dira-.



2013



MIMBRES

Por el agujero que el chamán de Praileaitz horada en su colgante votivo, que dormiría siglos en el fondo ignoto de la cueva, pasa una vertiginosa corriente telúrica arrastrando vida y personajes:

Canteros de claustros.

Pilotos balleneros.

Un marqués en su laberinto de espejos.

La poetisa rimando la marcha local.

El indiano defendiendo su biblioteca.

Milicianas de armas tomar.

El vidriero acendrando la luz.

La abnegada partera.

Un gigante maletero.

Un párroco etnólogo...

Y tantos, y tantas, formando una corriente impetuosa y entusiasta, capaz de trenzar los mimbres de un pueblo, que el chamán ignoraba que se llamaría Deba.

RAFAEL BRAVO ARRIZABALAGA

DEBA

(Primer premio en castellano)

LA IMPRECACIÓN

No me pude contener.

- ¡Voto a Dios!" ¡Ojalá vea muertos a todos los de Deba!

Al día siguiente, al terminar la misa una voz me dijo:

- Ven y verás.

Seguí a la voz por una escalera interior hasta lo alto de un contrafuerte hueco.

Allí me indicó una tronera para que me asomase.

Miré hacia abajo y vi pasar un entierro.

- Tu deseo se ha cumplido -dijo la voz- a partir de ahora verás a todos los debarras muertos.

Y desde aquí arriba, convertido en cerdo de piedra, los he visto pasar... durante siglos... a millares...

Crescen Aldana

JUAN CÁRDENAS GALLEGO

MADRID

(Segundo premio en castellano)

HOTZIKARA

Oroitzapenez betetako maleta zaharkitua gogor eutsi eta Egogaingo egoitzan lur hartu zuen. Bertan ikasi zuen “herrimin” hitzaren esanahia, “Debamina”.

Itsasoko haize leuna eta honek garraiaturiko askatasun usaina...

Hondar epela, beroa, hezea, bustia...

Hura zapaltzeak sortarazten zion amaierarik gabeko hotzikara...

Non ote zeuden bizirik sentiarazten zuten bizipenak?

Oxigeno makina itzali eta begietara begiratzuz esan zidan:
“Ekariezadazu Debako harez beteriko bi poltsakada.”

Lagunak beti lagun... eraman nizkion biak: hezea batean, lehorra bestean. Esku zimurtuak hondarrean barneratu zituen gogoz; sentituz, usainduz, oroitzapenetan murgilduz... Logelako zoruan sakabanatu zuen dena; oinustu eta begiak indarrez itxi bitartean. Honela aurkitu zuten erizainek, hotzikara amaigabea, DEBAKO HONDARTZAN...

IONE FERNANDEZ IGLESIAS

DEBA

(Euskarazko lehen saria)

ORDUAN

Artxiolaren bizikletak plazan: gorriak, txuriak, horiak... lurrean, bata bestearen ondoan, ilaran.

M. Pilarren gelak ketan. Hautsontzi mutxikin beteak.

“Txorro, morro”, “al pimiento colorado”, “policías y ladrones”, “kadeneta”; pañuelito, bote-bote, brilé; bis-bis, mariseko.

Eliren etxea. Solfeoa. Zeinen gustora joaten nintzen solfeora! Zigarroa, txakurra,... usaina. Usain gustokoa.

Gure Kai. Txaro. Teron, teron.

Garbiñe, Itziar. 10 mandamentu Sinisten dut Agur erregina.

Ikastola, eskola. Gu eta haiek. Euskara eta erdara. Gu euskara?

Miramar gozotegia plaza zaharrean. Kanelazko opilak bazkalondoan; etxetik ikastolara bidean, arratsalderoko erritual ezinbestekoa.

Trekuneko ogi egin berria. Epela. Kras-kras esku artean. Egun on Karmen; egun on M Angeles.

...

Nik 12 urte.

AMAIA ZINKUNEGI

DEBA

(Euskarazko bigarren saria)

2013

2015

RÍA DE DEBA

Atardece en Lasao.

Eugeni planta sus tortillas apenas cuajadas
sobre la alegre mesa verdiblanca.

Gonza truena maldiciones y aparta
los moquillos entre chanzas y jarana.

La tarde acaba;

el Pacita y el Rosita nos esperan amarrados a la estaca.

Txomin va y viene con su barca

y con el remo traza mil círculos en el agua.

¡Ay ría de Deba de verdes orillas adornada!

¡qué recuerdos me vienen, qué nostalgia!

¿es cierto que guardas dentro de tus aguas

los míticos sones de mi tamborrada?

Anochece. Corrocones saltarines celebran

que, allende el puente,

los traidores anzuelos se levantan....

JOSÉ IGNACIO NIHARRA MARTÍN

MADRID

(Primer premio en castellano)

RÍA DE DEBA DESDE LOS ALTOS DE ICIAR Y LASTUR

Deva: deidad. Bella ría de lecho

bajo mis pies extiende. Desbandada

de gaviotas puebla levantada

frente y mi corazón, antes maltrecho,

galopa hacia la vida por derecho

de rasa mareal. De pronto nada

suena confuso y Deba, rosa anclada

entre las dos preguntas de mi pecho,

ofrece embarcaderos, circunscribe,

besa perfiles mudos en declive

de acantilados que se multiplica.

De pronto, cuando Dios abre la puerta

de esta luz infinita, magna oferta,

la eternidad revienta y me salpica.


Seudónimo: ANA PATRICIA

MANUEL TERRÍN

BENAVIDES (ALBACETE)

(Segundo premio en castellano)

Uraren oihartzunak iraganera narama.
Amama, hankak uretan sartuta, izara
txuriak indarrez astintzen, zure tantek zi-
priztindu naute. Aita, bere txikitako aben-
turen protagonista, harri handi hartatik jauzi
eta buruz behera zure kolkoan sartzen. Esti eta
xamur bezain garden eta fresko. Arrainak ur
gardenetan. Txalupa- eta ontzi-bide. Beranduegi bizi
izan zaitut nik baina. Koloretan alai, baina bizitzaren
hutsez. Uhditan harro eta bortitz, agorraldietan apal
eta mehe. Estolda, kiratsa, aparra, oroitzapen ospela. Gazi
jaio, gozo hazi eta muxu gazikarez heriotza muxukatu. Behar
zaitut, bizitzaren ardatz. Nahi zaitut osasunez betea, bizitzaz
blai, harriz harri kantari. Aingirak bueltan dira, eta lertsuna.
Bihar besteak ere etorriko dira.



ARAI

INMA MUGERZA
ELGOIBAR
(*Euskarazko lehen saria*)

16:47

Jendea badator eta badoa.

Ibilera azkarrean batzuk, pauso motelean besteak. Baina neuk ez diet kasurik egiten.

Liluraturik naukazu, ezin begirik kendu. Apal eta isil zabiltzanean dena da bare dena da motel. Anabasak harrapaturik ordea, oihu, garrasi eta harro ikusten zaitut.

Baina neuk berdin maite zaitut.

Banandurik gauzkate, errailek zorrotz moztzen dute zuganako bidea. Geroz eta urrunago zaude, Anes Arrinda pasealekuak nigandik oraindik urrunago eraman zaitu.

Baina, ez dute lortuko!


Errail, ibiltari, pasealeku edo dena delakoak ez du zuganako amodiorik eraitsiko. Hain hurbil eta hain urrun. Zu hain busti eta ni hain zurrun.

1893. urtean eraiki nindutenetik amorez naukazu zuri so.

GOIZANE AIZPURUA
DEBA
(*Euskarazko bigarren saria*)

2015

2016



QUEMANDO UNA RAMITA

Mi hijo me observa curioso mientras quemó, solemne y cuidadosa, una ramita en un recipiente. Por la ventana, se cuele la luz de los relámpagos. Hace muchos años la pirómana era mi madre y la observadora yo, inquieta y miedosa ante los ruidos de los truenos.

Mañana haremos una excursión a la ermita de Santa Catalina de Deba y rodeados de maravilloso paisaje del lugar, mi hijo sabrá que la fe, muchas veces, espanta temores aunque haya que ayudarse de la quema de ramas bendecidas por los santos queridos desde la infancia.

Seudónimo: Marián

M^a ANTONIA MANZANO PRESA
MADRID
(Primer premio en castellano)

UN DÍA INOLVIDABLE

Estaba inquieto y las manos le comenzaron a sudar al verla entrar por la puerta. El corazón comenzó a latirle con más fuerza al ver cómo se acercaba vestida de blanco hacia él. Una madeja de recuerdos comenzó a recorrer su cerebro al verla, cómo se conocieron, sus primeras vacaciones y el día que le pidió compartir el resto de su vida junto a él. Lo había hecho en ese mismo lugar tres meses antes. Y lo hicieron como ellos querían, sus padres, ellos y el mejor de los testigos: Santa Catalina

MADDI ECHEVERRIA CRUCELEGUI
DONOSTIA
(Segundo premio en castellano)

TALAIA

Santa katalina

Urte asko pasa diren arren, ezagutu egin zaitut. Ezin izan dut ahaztu zure begien urdina. Nigana itzuli zara, bisitan. Txikia zinenean, amonak egindako soineko zuriaz eta lorerik ederrenekin apaindutako *San Juan Txortaz* etortzen zinela gogora ekarrita, atzera egin dut historian. Malenkoniaz oroimenera ekarri ditut haizearen laguntzaz zabaltzen nituen kanpai hotsak. Oroimenera, danbolinaren soinuaz alaitutako erromeria alai eta jendetsuak. Oroimenera, dantza lotuen debekuak. Egun, Donejakue bidean doazen turisten begiak ikusten ditut nire burdinazko ateko zirrikituetatik, barnealdera begira. Ahaztua izan naizen sentipena izaten dut sarritan, baina hementxe jarraituko dut, talaia eder honetan, batzuetan haserre eta besteetan bare dagoen Kantauri itsasoari so.

NAIARA ZUBIMENDI ZUBILLAGA
ZUMAIA
(Euskarazko lehen saria)

Behin Lapariko kresal lurrunei jarraika bideak zure gerizpera ekarri ninduenetik, ordutik naiz zure erromes. Hemen, goizaldeko ihintzak fededun bihurtu ninduen ezinbestean, sakon arnas hartuz, bi besoak zabalik munduaren haunditasunari so eginez. Hemen, zaldirik gabeko santua Alejandriako martiri nahigabetuarekin mintzo ei da gauez; hutsak eta isiltasunak itsasoaren marmarra ere mututzen duten orduan. Urkien ostan ezkutaketan jostatzen diren gaueko abereen orroak eta sagarroiaren pausu ttipiak ere isilarazteko gai den kantua da, aspaldiko baleontzietan abesten zena.

Eta ba al dakizu? Unibertsoaren zabala, harrizko gotorleku zahar hau janzten duen landa berde honetatik, ezereza da, Kantauri harrotuan edonork jaurtitako anpulu bakartia bezain ñimiñoa, ia hutsala.

MARTA ORTIZ MATEO
MADRIL
(Euskarazko bigarren saria)

2016

2017

IV CONCURSO LITERARIO PATROCINADO POR EL AYUNTAMIENTO DE DEBA Y LA FUNDACIÓN CÁRDENAS

- Podrán participar todos aquellos que lo deseen.
- Se establecerán dos modalidades: una en euskera y otra en castellano.
- El tema de los trabajos deberá estar relacionado directa o indirectamente con **el puente que une Deba y Mutriku**.
- La extensión de los trabajos no superarán en ningún caso las 100 palabras.
- Habrá un primer premio de 500 euros y un segundo premio de 200 euros por cada modalidad.
- Los trabajos se presentarán en papel o soporte digital en un sobre cerrado con seudónimo. Dentro y junto al trabajo, deberá incluir otro sobre más pequeño con todos los datos del autor: nombre, apellidos, edad, teléfono y dirección, así como el correo electrónico si lo tuviera.
- Los trabajos se presentarán en la oficina de turismo antes del día 15 de octubre de 2017.
- El jurado estará compuesto por las personas que designe la Concejala de cultura del Ayto. de Deba, y su fallo será inapelable.
- Los trabajos quedarán en propiedad del Ayuntamiento y la fundación Cárdenas, así como los derechos de reproducción y difusión de los mismos, señalando siempre el nombre del autor.
- Los trabajos deberán ser originales e inéditos. En caso de infringirse lo anterior, el participante será plenamente responsable de todo tipo de daños y reclamaciones, quedando los organizadores y patrocinadores libres de toda culpa y responsabilidad.
- El hecho de participar en el concurso implica la aceptación de estas bases.





CÁRDENAS FUNDAZIOAK ETA DEBAKO UDALAK ANTOLATUTAKO IV. LITERATUR LEHIAKETA

- Edonork har dezake parte.
- Lanak euskaraz edo eta gazteleraz sailkatuko dira.
- Gaia: Deba eta Mutriku arteko zubiarekin zerikusia duen edozein gai.
- Lanek ez dute 100 hitz baino gehiago izango.
- Bi sari egongo dira hizkuntza bakoitzeko; lehenengoa 500 eurokoa eta 2. saria 200 eurokoa.
- Lanak paperean edo euskarri informatikoan aurkeztuko dira gutunazal handi batean. Kanpoko aldean pseudonimoa baino ez da idatziko; barruan beste gutunazal txiki bat gehitu beharko da honako datuekin: izen-deiturak, helbidea, adina eta telefonoa baita helbide elektronikoa ere, izanez gero.
- Lanak turismo bulegoan aurkeztu beharko dira 2017ko urriaren 15a baino lehen.
- Epaimahaia kultura zinegotziak aukeratutako pertsonak osatuko dute eta erabakia apelaezina izango da.
- Lan guztiak antolatzaileen eskuetan geratuko dira; hau da, Udalaren eta Cárdenas fundazioaren eskuetan. Gainera, lanen erreprodukzio eta hedapen eskubideak izango dituzte.
- Lanak jatorrikoak eta argitaratugabeak izango dira.
- Edozein kalte edo erreklamazio izanez gero, partehartzaileak izango du ardura osoa, antolatzaile eta babesleek ez dute inongo erru edo erantzukizunik izango.
- Lehiaketan parte hartzeak arau hauen onarpen osoa dakar.

2017



FUNDACIÓN
CÁRDENAS



DEBAKO UDALA



KULTUR ELKARTEA